

Justizia eta Bakea Batzordea  
2012ko analisia

## Artisau-meatzaritza Ekialdeko Kongoko Errepublika Demokratikoan: kokalekuen baldintzak eta ikuspegiak

Justizia eta Bakearen Batzordea Belgika frankofonoan (irabazi-asmorik gabeko elkarte)

Rue Maurice Liétart 31/6  
B-1150 Brusela (Belgika)  
Telefona: +32 (0) 2 738 08 01  
Fax: +32 (0) 738 08 00  
info@justicepaix.be [www.justicepaix.be](http://www.justicepaix.be)

## Artisau-meatzaritza Ekialdeko Kongoko Errepublikan: kokalekuen baldintzak eta ikuspegiak

2012ko martxoaren 19tik 30era, Frédéric Triest, Bakea eta Justiziaren kide iraunkorra, Kongoko Errepublika Demokratikora joan zen misio batean. Artisau-meatzaritza kudeaketan eta eraginean lan egiten duten gizarte zibilaren eragile desberdinekin bildu zen Bukavun, Goman eta Kinshasan. Bakea eta Justiziak aukera izan zuen Ekialdeko Kongoko ekonomiarako eta berreraikuntzarako ezinbestekoa den sektore honen egoera aztertzeko, eta eskualdean bake iraunkor bat ezartzeko eta Belgikatik eta Europatik buru daitezkeen arau batzuk proposatzeko aukera ere izan zuen.

### I.Sektore baten estutasuna Estatuaren gainbeheraren testuinguruan

Meatze jardueraren artisau-sektoreak ondorengo esan nahi du: bere kabuz edota beste pertsona batek bere eskura ipinitako zonalde batean lan egiten duten gizabanakoek egindako erauzketa da, lan hau erosketa eskusiboaren edota jasotzen duenaren zati baten truk egiten delarik<sup>1</sup>. Kalkulu batzuen arabera, artisau-ekoizpena Kongoko Errepublika Demokratikoak esportatzen duenaren meatze ekoizpenaren %80 baino gehiago izango litzateke<sup>2</sup>.

Artisau-meatzaritza ekonomia ehundaka mila kongoar ukitzen dituen eskala handiko biziraupen-ekonomia da. Katanga-n, Maniema-n, Ipar Kivu-n, Hego Kivu-n eta ekialdeko eskualdean (Ituri) aurki daiteke. Historikoki ez da beti horrela izan, batez ere Ipar Kivu-n eta Hego Kivu-n. Katanga ez bezala, bi probintzia hauek ez dira meatze-ustiapenean tradizioz eta lehentasunez jardun duten eskualdeak, batez ere bere zonalde menditsuan. Hala ere, gaur egun zonalde guztian urrea, koltana<sup>3</sup> (tantalioaren minerala), wolframita (wolframioaren minerala) eta kasiterita (eztainuaren minerala) ustiatzen dira

Meatze-ustiapen industriala 1923an hasi zen ekialdeko Kongoan. Independentziaren ondoren, eskualdeko meatze jardueraren errentagarritasuna pixkanaka gutxiagotu zen. 1976an, SOMINKI (Société Minière et Industrielle du Kivu, Kivu-ko meatzaritza enpresa industriala) enpresa belgikarra sortu zen (estatu kongoarraren %28ko partaidetza duen enpresa mistoa<sup>4</sup>, 10.000 km<sup>2</sup> inguru zuten 47 emakidarekin, 6 emakida hauetan urrea ustiatzen zelarik: 3 Kamituga-n eta beste 3 Lugushwa-n, Namoya-n eta Twangiza-n. 80 harmakadako krisi ekonomikoaren ondorioa ezta inuaren kotizazioaren lur jotzea izan zen eta SOMINKI-k bere ustiatze gehienak itxi behar izan zituen, urregintza izan ezik, sektore hau errentagarri izaten jarraitu zuen eta honek artisau-ustiapenei atea zabal-zabalik utzi zizkien. Bitartean, Mobutuk meatze-ustiapen artisaua liberalizatu zuen, batez ere Kasaï-n eta Katanga-n zegoena, biztanleriaren haserre lasaitzeko eta gizartearen altxamendu bat saihesteko. 1996an, Kanadako BANRO enpresak SOMINKI-ren akzionadun pribatu belgikarrak zuen akzio guztiak bererosi zituen, hots, enpresaren %72.

1996ko guda sortzearen ondorioz, Kongoko Askapenerako Indar Demokratikoen Aliantzak SOMINKI-ren instalazioak arpilatu zituen. Laurent-Désiré Kabila-k BANROk zituen meatze-tituluen baliotasuna eztabaidatu zuen. Bigarren gatazkaren hasierarekin 1998an eta Demokraziarako Berriz Biltze kongoarrak Kivu-etan egindako okupazioarekin, SOMINKI-ren antzinako konzesioak talde-armatuen, eskualdeko pertsona ospetsuen eta artisau-jabeen eskuetara pasatu ziren. 2002an egindako Bake akordio sinaduraz geroztik, Joseph Kabila presidentek BANRO-rekin adiskidantzako akordio bat bilatu du; izan ere, BANRO-k Kongoko estatuari mila milio dolar eskatzen dizkio kalteengatik nazioarteko arbitraje gorte baten aurrean Washington-en. 2003ko apirilean ezarritako dekretu batek baimena eman zion BANRO-ri bere konzesioak berreskuratzeko. Enpresak bakarrik erre-ustiapenari ekin dio berriro, kasiteritarena Kongoko Estatuari utziz. 2003ko urriaren 20an, Bukavu-n

---

<sup>1</sup>Munduko Bankua, *La République Démocratique du Congo : la bonne gouvernance dans le secteur minier comme facteur de croissance (Kongoko Errepublika Demokratikoa: gobernantza ona meatzaritzan hazkunde faktore gisa)*, 2008ko maiatza, orr.63.

<sup>2</sup>M. Mazalto, « La réforme du secteur minier en république démocratique du Congo : enjeux de gouvernance et perspectives de reconstruction », *Afrique contemporaine*, aldizkarian, 227. zenbakia, 2008/3, orr.65.

<sup>3</sup>« Koltana » Kongoko biztanleek kolumbita-tantalitari ematen diote ezizena da. Bahetu eta findu ondoren, tantalio, elektrizitate eroale bikaina dena, erraz xaflakorra eta korrosioarekiko eta beroarekiko oso erresistentea da. Nahiz eta gaur egun bakarrik munduko ekoizpenaren %5 eta %10-en artean Kongoko Errepublika Demokratikotik datorren (ekialdetik, Kivu probintzietatik), badiote Afrikak munduko erreserben 60% baino gehiago dituela eta Kivu-ko koltana munduko tantalio-tasarik altuenetariko bat duela.

<sup>4</sup>Didier de Failly, « Coltan : pour comprendre... », en *L'Afrique des Grands Lacs*, anuario 2000- 2001, Aintzira Handiko Eskualdeko Ikasketa Zentrua, Anberes, L'Harmattan, p. 281-306.

egindako zeremonia batek BANRO-ren jardueren hasiera baieztatu zuen<sup>5</sup>. Gaur egun, Kanadako enpresak Kamituga, Lugushwa, Namoya eta Twangiza-ko urre-emakidekin lotuta dauden ustiapenerako lau baimen ditu. Urre-ekoizpen industrialia 2011ko urrian hasi zen ofizialki Twangiza-n, non BANRO-k fabrika bat eraikin zuen eta aire zabaleko meategi bat ustiatzen duen. Gaur egun, meatze-enpresak Namoya-n beste fabrika bat eraikitzeko behar dituen funtsak biltzen ari da.

SOMINKI-ren antzineko emakiden ustiapen industrialaren etena 1996tik 2011ra gertatu zen bitartean, 1999 eta 2000 artean emandako koltanen *boom*-ak azaltzen du neurri handian Kivu-etako artisau-ereduaren garapena. Denboraldi horretan, mineral honen salneurria 350\$era igo zen kilogramoko. Nazioarteko merkatuak telefono mugikor eta ordenagailuen fabrikatzaileei zuzendutako eskaera handiak eragin zuen igoera hau. Asiako galdategieek ohizko hornitzaileen (Australia eta Kanadaren) hornikuntza dibertsifikatzen saiatzen zirenez, Kongoko koltana oso lehiakorra zen koste gutxi zituen artisau-moduan ustiatzen zelako. Aste batzuetan hainbat dolar lortzeko itxaropenarekin, eskualdeko biztanleek, hainbat ume barne, mineral preziatua bilatzeari ekin zioten<sup>6</sup>. Boom honen efektua zela eta, meatze-ustiapen artisaua benetako irtenbide ekomikoa bilakatu zen Kivu-etako biztanleriaren zati handi batentzako. Meatzarien kopurua bi probintzietarako 400.000 ingurukoa zela kalkulatu da. Bakarrik Hego Kivu-k 900 bat artisau-zonalde dituela kalkulatu da!

Geografiarekin zerikusia duen beste funtsezko faktore batek ekialdean sortu den artisau-ustiapen forma azaltzen du: eskualdeen isolamendua. Egia esanda, bide eta elektrizitatearen azpiegitura ezak ustiapena bide industrialekin burutzea ezinezkoa egiten du. Herrialdearen ezegonkortasun politikoaren egoeraren eta eskualdearen segurtasun ezaren aurrean, fabrikak eraikitzea eta mineralak garraiatzea (ohianean sakon-sakon eta batzuetan hirigune handietatik ehundaka kilometroetara dauden lekuak) gainditzeko zailak diren finantza-erronka logistikoak dira beharbada Kivu-ren azpisoruan interesatuta dauden inbertitzaileentzako, bai publiko edo pribatuak izan. Meatze-ustiapen artisaua ustiapen-eredu egokiena dirudi logikoki, lehenago aipatutako faktoreen elkareragina kontuan hartuz.

2002an, Kongoko Errepublika Demokratikoak Meatze-Kode berri bat idatzi zuen. Kode berriaren helburuetariko bat artisau-sektorearen araudiari zegokion; honi buruz testu honen IV atalean hitz egingo dugu. Araudi berri honen helburuak (aurreko Kodean ez zeudenak) ondorengoak dira: legez kanpoko praktikak mugatzea, artisau-meatzarien segurtasuna handitzea, baliagai naturalekin lotuta dauden gatazkak eta giza eskubideak urratzeak sahistea. Kode berriak sektorearekin lotuta dauden konpetentziak hiru taldeen artean banatzen ditu: Meategien Ministerioa (artisau-ustiapenarako zonaldeen mugapena), eskualdeko Gobernuak (artisau-ustiapenaren produktuen negoziazioen baimenen kontzesioa) eta meategietako Eskualde-Dibisioko Nagusiak (meatzarien baimenen kontzesioa).

## II. Meatze-jardueraren “txirotasunerako” tranpa

Lana sortzeko efektua izan arren, ekialdeko Kongoan garatzen den meatze-jarduera artisaua “txirotasunerako tranpa”-tzat hartzen da: denbora gutxian eta modu errazean aberatsa bilakatzeko ilusioaren atzean, txirotasun dinamika bat sortzen du<sup>7</sup>.

Meatzariek soziologikoki talde heterogeneo bat sortzen dute. Kivu-n, indarkeria armatuagatik bere bizilekua aldatu behar izan duten pertsonak irtenbidea meategian aurkitzen dute, hau urrutiko hiri batera migratzearen alternatiba delarik. Meategietan ere hiritik datozen pertsonak daude: eskolara joateri utzi dioten gazteak eta funtzionarioak (irakasleak, etab.) beraien soldatak, jasotzen dutenean, ez dielako uzten beraien familia mantentzea. Biztanle-dentsitate handiagoa duten eskualdeetan, gazteek bere baitan lurran lan egiteko dituzten zailtasunek azaltzen dute zergatik meatze-jardueretan lan egin behar duten. Meatzariak bilakatzen diren aspaldiko soldadu desmobilizatuak ere daude, batez ere Mai Mai-en artean. Azkenik, meategiak emakumeentzako aukera ekonomikoak eskaintzen ditu, adibidez, “amen” berreskuratzea eta birrinketa, mineralen eralkitzea/garbiketeta.

Meatzariek, beren lana dela eta, irabazi eskasak jasotzen dituzte; ikerketa batzuen arabera, irabazi hauek 1 eta 2 dolar eguneko dira batezbesteko<sup>8</sup>. Beste batzuek, 2012ko martxoan CJP-ren misioaren bitartean bildu zirenak, kalkulatu dute irabazi hauek 10-20 dolar eguneko izan daitezkeela. Kopuru bat edo bestea izan, meatzariek ezin dute orokorrean dirua aurreztu, dena gastatzen baitute. Honen arrazoia ondorengoa da: lekuen kokapena eta garraioaren prezioa, janaria eta

---

<sup>5</sup>Frank Mayundo Muyuba, *Exploitation minière au Sud-Kivu: de la responsabilité des entreprises et de l'État*, CEPROMAD-ko unibertsitatea Bukavu/Hego Kivu/RD, 2006.

<sup>6</sup>Aloys Tegera, « Coltan explained to my son », in *Regards croisés*, n°30 bis, Pole Institue, Goma, 2011ko urria, orr.64-67.

<sup>7</sup> International Alert, *Étude sur le rôle de l'exploitation des ressources naturelles dans l'alimentation et la perpétuation des crises à l'Est de la RDC*, London, 2009ko urria.

<sup>8</sup> *Ibidem*, orr. 64

ohizko kontsumoko ondasunak beste aldeetan baino bi edo hiru aldiz garestiagoak dira. Are gehiago, meatzariak bere soldataren zati bat alkoholean eta prostituzioan gastatzen dute. Askok zorpetuta amaitzen dute, batez ere euri denboraldian, lan egitea zailagoa delako. Azkenik, lanaren baldintza txarrak arriskutsuak dira lagileen segurtasunerako eta osasunerako: lur-jausi arriskua harrobietan, lehergaien erabilera, tuneletako hezetasunagatik eta mineralak eskuz birrintzeak sortutako hautsarekin lotuta dauden arnasketako gaixotasunak.

Orokorrean, meatze-eskulangintzak epe laburreko biziraupen ekonomiko bat uzten du bakarrik. Hala ere, meatzariak zorte gutxi badute, beste zein irtenbide dute meatzariak? Sektore honek erabateko txirotasunean erortzea saihesten du edota bertatik irtetzen saiatzen direnentzako biziraupenerako baliabideak ematen dizkio. Azkenengo aukera hau barik, ekialdeko Kongoko egoera oraindik tirabiratsua izango litzateke.

### **III. Mineralen esportazioaren etanaldia ekialdeko Kongoon (2010 iraila- 2011ko martxoa)**

2010eko irailaren 11tik 2011ko martxoaren 10 arte, Kabila presidentek Ipar Kivu, Hego Kivu eta Maniema eskualdetatik ateratzen ziren mineralen esportazioa eten zuen. Presidentearen erabakia esportazioei blokeo hau ezartzeko Estatu Batuen Kongresuak 2010eko uztailan Dodd/Frank lege estatubatuarra hartu izatearen ondorioa da; lege honen helburua Wall Street erreformatzea eta kontsumitzaile estatubatuarren babesa indartzea zen. Legearen 1502 atalari ondorengo puntua jasotzen du: *Security and Exchange Commission*-an (SEC) erregistratutako enpresek eta zeinen produktuek ezta inu, koltan, wolframio edota urrea diren, behartuta daude 2012tik aurrera mineral hauek Kongoko Errepublika Demokratikotik edota inguruko herrialde batetik erosi dituzten jakinaraztera. Mineralak Kongoko Errepublika Demokratikoan badu jatorria, "zuzeneko arduraren" (*due diligence*) neurriei buruz informatzera behartuta daude, talde-armatuak finantziatzen duten mineralen erosketa saihesteko. Horregatik Kabilak esportazioak etetzea erabaki zuen, talde-armatuen eta agintari zibilek mineralen ustiapenean eta salerosketan zuten parte-hartzeari amaiera ipintzeko, eta Kongoko meatzaritza artisaua lege estatubatuarra martxan ipintzerako prestatzeko. Ondorioz, artisau-ekoizpenak blokeoaren sei hilabeteen zehar beherapen handia izan zuen.

### **IV. ...eta ondoren "izatezko" blokeo bat (2011ko apirila-?)**

Blokeoa 2011ko martxoan amaitu arren, sortu zuen egoera kaotikoak oraindik irauten du. Honen arrazoiak elektrogintzako enpre handiek (batez ere ordenagailu eta mugikor-komunikazioetarako sistema globalaren fabrikatzaileek) ekialdeko Kongoko mineralen aurka ezarritako "izatezko blokeo" bat da. Izan ere, azken hauek, koltaneko, wolframioko eta ezta inu kongoarraren "azken erosleak" direnak, Dodd/Frank legearen 1502 atalaren ezarpenari beldurra diote. Kongotik datozen mineralak talde-armatu bakar bat ere ez dutela finantziatzen erabat ziurtatu ez dezaketenez, Kongoko ekialdeko bortxakeriarekin lotuta izatearen "irudi arriskua" oso handia da enpresa hauentzako. Horrela, legearen ezarpena baino lehenago ere, Kongoko Errepublika Demokratikoko mineralak erosten zituzten Asiako galdategiak saltzaile kongoarrei mineralak erosteari utzi zioten 2011ko erdialdera.

### **V. Motel doan ekoizpen bat... urrearen kasuan izan ezik!**

Zein egoeran gaude gaur egun? Motelduta badago ere, koltaneko, wolframioko eta ezta inuko ekoizpen artisaua ez da gelditu. Ez dira artisau-kokapenak bertan behera utzi, meatzariak gutxiago ustiatzen dituzte nazioarteko saltzaileak negozioa izuliko direla espero dutelako. Ezta inuaren prezioa orain dela gutxi merkatuan handiagotu dela eta, momentu honetan gehien ustiatzen diren lekuak kasiterita erauzten diren lekuak dira. Konparazio bat egiteko, koltana ez da hain interesgarria momentuz. Bere misioan zehar, CJP-k Bukavu-tik 80 kilometroetara (Nzibira hiritik hurbil) dauden bi kasiterita-emakida bisitatzeko aukera izan zuen: Tchaminyagu eta Nyamrerwe. Badirudi meatzariak meategi hauetan urez betetako harrobiak konpontzen ari direla hainbat hilabeteetan jarduerarik eza izanaren ondoren. Ferrita eta kasiterita apur bat ekoizten dira, baina meatzariak espero dute negozioa erabat suspertzea. Izan ere, mineral-salerosketarako bi denda bakarrik irekita daude Bukavu-n, eta biak txinatarrak dira. Erosten jarraitzen dute, baina egoeraz aprobetxatzen dira prezio oso baxuetan erosteko.

Urrearen kasua, egoera desberdina da. Zaila da kalkulatzeko erazizko kopurua, baina Kongoko ekialdean bildutako partaideen arabera, bere ekoizpena ez da benetan gutxiagotu. Are gehiago, urrearen prezioa izugarri igo da krisi ekonomiko hasi zenetik eta, bere natura dela eta, bere ekoizpena kontrolatzea ia ezinezkoa da: ez du prozesu industrial bat behar finduta eta galdatua izateko. Horregatik, pertsonak errepidetik garraiatu dezakete inork ikusi barik, eta behin meategitik ateraz gero, ezinezkoa da bere jatorria identifikatzea. Legez kanpo erraz trafikatu daitezkeen produktu bat da. Ekialdeko Kongoon lortutako informazioez arabera, Kivu-ko urrearen zati garrantzitsu bat Tanganyika aintziran zehar ateratzen da Kongoko Errepublika Demokratikotik Burundin saltzeko. Urre hau Bujumbura-n bizi diren partikular errusiarrek erosten dute eta geroago Dubaira esportatzen dute.

Zein da bitartekari errusiarren interesa Burundin urre hau erosteko eta ez Kongoko Errepublika Demokratikoan? Erantzuna erreza da: Burundin zergak baxuagoak dira. Aintzira Handien Eskualdean dauden zerga-desberdintasunek Kongoko baliagai naturalen arpilatzeari bidea ematen diote. Zoritxarrez, Aintzira Handien Eskualdeko arazoari buruz ez da (oraindik) Nazioarteko Batzarrean eztabaidatu.<sup>9</sup>

## VI. Lege estatubatuarraren 1502 atalaren inguruan sortutako eztabaida

Hasiera batean 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon behar bazuen ere, Dodd/Frank legea ez da oraindik ezarri, SEC-ek bere erabakia luzatzen duelako 1502 atalean dauden neurriak burutzeko behar diren neurri zehatzei dagokienez. Elektrogintzaren enpresa handiek SEC-ri presioa egiten diote Estatu Batuetako Merkataritza Ganbararen aurrean demandatuko duela mehatxatuz. Gainera, Kongoko Errepublika Demokratikotik eta atzerritik datozen kritikek xedapenen legezkotasuna ahultzen dute. Kritika hauek biztanleriarentzako izango duen eragin sozio-ekonomiko kaltegarrian oinarritzen dira, batez ere meatzarientzako eta sektorearen menpean era zuzenean eta ez-zuzenean dauden gainerako pertsonentzako<sup>10</sup>. Segurtasunari dagokionez, meatzariak talde-armatuentzako (Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak, Kongoko Errepublika Demokratikoko Indar Armatuak, Mai Mai Taldeentzako) suposatzen duen irabazi potentzialak gutxiagotu dira ekoizpen baxua dela eta. Dena den, talde-armatuek legez kanpoko ustiapenean parte hartzen jarraitzen dute eta atzerrira egindako kontrabandoa handiagotu da.

## VII. Talde-armatuen presentzia eta bortxakeria: ekonomiaren militarizazioa meatze-eztabaidatik harantz

Ezaguna da talde-armatu desberdinek, bai nazionalak bai atzerritarrek, 15 urteetan zehar finantziatu direla ekialdeko Kongoko mineralen ustiapenari esker. Egoera honen ondorioz, herrialde hau gaur egun “odol-mineralen” arazoaren kasu adierazgarria da nazioarteko agertokian. Kongoko Errepublika Demokratikoan ipinitako arreta bereziak azaltzen du Estatu Batuen erabakia, hots, mineral kongoarrei indartutako kontrol bat ezartzea bere “gatazka gabeko” jatorria ziurtatzeko. Horregatik, presidentearen etenak eta “izatezko” blokeoak ekialdeko Kongoan dauden talde-armatuen finantzaketaren gain duten eragina zein den jakiteko eskubidea dugu.

Era orokorrean, protagonista armatuek artisaus-sektoretik etekinak ateratzen jarraitzen dute modu ilegalean, ekoizpenaren legez kanpoko prezioa ipintzeari esker, sektoreko langileek beraien “babesa” eskaintzeagatik ematen dioten diruari esker, salerosketa-zirkuituen nagusitasunari esker meatze-lursailen inguruetan eta hertsatzeko baliabideak erabiltzerai esker (lan behartua meategian).

Gaur egun, Ruandarako Askapenerako Indar Demokratikoak talde-armatu atzerritarrik indartsuena da lur-eremu militarri dagokionez. Meatze-baliagaiak eskuratzeko aukera eta beraien kontrola gutxiagotu da, baina eztaunitik eta koltanetik irabaziak lortzen dituzte iparraldeko hainbat lurralde eta sektoretatik (Libero) eta Hego Kivu-tik (Walungu-Itombwe)<sup>11</sup>. Iturri batzuen arabera, Askapenerako Nazioarteko Indarrak (Burunditik datozen talde errebolterario) Hego Kivun aktibo egongo lirateke, non baliagai naturalen (mineralak eta egurra) salerosketatik etekin garrantzitsuak lortzen dituzten<sup>12</sup>.

Mai Mai miliziak eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Indar Armatuek meatzagiztatik etekina ateratzen jarraitzen dute, batez ere urrea eta eztaunitari esker. Kongoko Errepublika Demokratikoko Indar Armatuek hainbat meategi-zonalde utzi dituzte unitate batzuen berregituraketaren ondorioz. Zoritxarrez, beste unitate batzuek onura atera diote egoerari bere eragina kokaleku batzuetan indartzeko, segurtasuna eskaintzeko aitzakiarekin. Ruandarako Askapenerako Indar Demokratikoak eta Mai Mai miliziek bigilantzia gabeko beste zonaldeetara hedatu dira.

---

<sup>9</sup>Aintzira Handien Eskuadeko Batzarra 2004an martxan jarri zen hainbat gobernuen arteko prozesu bat da; Aintzira Handien Afrikako 11 Estatu parte hartzen dute eta bere helburua Eskualdean bakea ezartzea da. 2008ko ekainan, “Baliagai naturalen legez kanpoko ustiapenaren kontrako borrokari buruzko protokolo” bat atera zuen (« Protocole sur la lutte contre l'exploitation illégale des ressources naturelles» frantsesez).

<sup>10</sup>Didier Verbruggen, Evie Francq eta Jeroen Cuvelier, *Guide to Current Mining Reform Initiatives in Eastern DRC*, Nazioarteko Bakerako Informazio Zerbitzua (IPIS), Anberes, 2011ko apirila. Ikusi ere Sarah Zingg Wimmer eta Filip Hilgert, *Bisie. A one-year snapshot of the DRC's principal cassiterite mine*, Nazioarteko Bakerako Informazio Zerbitzua (IPIS), Anberes, 2011ko azaroa.

<sup>11</sup>Nazio Batuen Aditu-Taldeak Kongoko Errepublika Demokratikoan, azken txostena 2011, Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua, 2011ko abendua, orr. 37-40.

<sup>12</sup> Ibidem, orr.51-52

Modu honetan, talde-armatu hauek kokalekuetan eta meatze-trafikoan duten eragina hainbat sektoretan indartu da. Halaber, biztanleria zibilaren aurkako bortxakeria ere. Izan ere, meatze-jardueraren jaitsierarekin lotuta dagoen irabazien galera ikusita, herrialde batzuek arpatze bortitxagoak eta bahiketak erreskateen truke jasaten dituzte.

Didier de Faily apaizaren arabera, BEST-en (Ikasketa zientifiko eta teknikoaren Bulegoa, Bureau d'Études Scientifiques et Techniques frantsesez) zuzendaria, meatze zonaldeen kokapenaren ezaugarri geografikoek azaltzen dute talde-armatuek zonalde hauetan egiten duten militarizazioa, zonalde hauek ohiane tropikalak mugatzen dituen ala ez kontuan hartuz. Izan ere, talde-armatuak ohiana dagoen kokaleku isolatuetan aktibo daude orokorrean, landaretza sarriaren ondoan egoteak zuhurtzia eta, beharrezkotan, atzera erraz egiteko aukera ematen dielako. Hemen, altitudeak funtsezko papera du, era honetako oihan tropikalak 1000 metro azpian garatzen direlako. Beraz, faktore ekonomikoak bakarrik ez du azaltzen baliagai- naturalen ustiapenarekin eta talde-armatuen presentziarekin lotuta dagoen lotura konplexua. Faktore geografikoak, eskualdeen kokapenarekin batera (komunikazio-azpiegitura eza), egitura elementu onuragarriak dira talde-armatuek eskualdean egiten duten legez kanpoko ustiapenerako.

Hala ere, mineralek talde-armatu desberdinen finantzaketan rola izaten jarraitzen badute, 2009tik aurrera bere estrategia ekonomikoak dibertsifikatu direla esan behar da. Mineralek legez kanpoko ustiapena estatregia hauen osagaietariko bat da. Adibidez, Ruandarako Askapenerako Indar Demokratikoen finantzaketa-iturri nagusienak oinarritzko produktuen salerosketa, legez kanpoko zergen atxikipena eta nekazaritzako produktuen (palmondo olioia eta kalamu) salmenta dira<sup>13</sup>. Era honetako jarduerak eskualdeko talde-armatuei egotzi dakieke oro har, eta baita errepideen zehar legez kanpoko bidesarrietan jarritako hesiak ere. Horregatik, ekonomiaren benetako militarizazio baten aurrean gaude bi Kivu-etan, eta militarizazio hau meatze-ustiapenaren kasu bakarretik harantz doa.

### VIII. Artisan-jardueraren garrantzi ekonomikoa ekialdeko Kongoan

Misioan zehar jasotako ikuspuntu desberdinak kontuan hartuz, badirudi ekialdeko Kongoan eta Kinshasan dituzten iritziak aurkakoak direla artisan-meatzaritza egungo eta etorkizuneko paper ekonomikoari dagokionez. Izan ere, Kinshasan, gizarte zibilaren ordezkari gehienek kalkulatu dute sektore honek ez duela lagundu Kongoko nazioaren garapenean eta eskas lagundu diezaiokeela. Bere aburuz, sektore honek biztanleriaren zati txiki bat laguntzen du bakarrik ekialdeko Kongoan (meatzariak, talde-armatuak, merkataria, salerosketa-etxeak, esportatzaileak). Oso gutxi arautuak, artisan-sektorearen ondorio diren esplotazio eta salerosketa Estatuaren kontrolatik kanpo geratzen dira eta lortutako diru-sarrerak fiskalak ez diote finantza publikoari zergak ematen. Arautuak egonda ere, meatze-ustiapen artisaua ez da "etorkizuna duen" sektorea. Kinshasarako, meatzariak aukera ekonomiko gutxi eta lan-baldintzak txarrak eskaintzen dizkien biziraupenerako jarduerak da. Are gehiago, talde-armatuen presentzia eta biztanleriaren kontrako bortxakeria sustatzen ditu. Zentzu honetan, adibidez, CERN-eko (Baliagai-Naturalen Apezpikuen Batzordea, Commission Épisopale ad hoc pour les Ressources Naturelles frantsesez) Henri Mulhiyaren arabera, nekazaritza eta abeltzaintzak epe luzeko aukera interesgarriagoak dira biztanleriaren zati handi batentzako<sup>14</sup>.

Ekialdeko Kongoan, ikuspuntua desberdina da. Araututa ez dagoen eta talde armatuek neurri handi batean kontrolatzen duten sektore bat bada ere, sektore honek lekuko ekonomiari era nabargarrian laguntzen du, eta ez bakarrik Kongoko ekialdeko hiri handietan, Kivu-etako isolatutako eskualde anitzetan ere bai. Presidentearen etenaren eta "izatezko" blokeoaren eraginari esker artisan-sektoreak eskualdeko ekonomian izan duen papera kalkulatu daiteke gutxi-gorabehera. Kivu-etako eskualdearen zati handi bat isolatuta dagoela esan dugu jada, errepide ezagatik edota beraien egoera txarragatik. Herri ugarietara iristeko aukera bakarra oinez hainbat egun ibiltzea da. Artisan-jarduerari esker eta kontsumorako oinarritzko produktuak (xaboia, gatza, etab) eramaten zituzten aireontzien hegaldiei esker, errentagarri ziren berriro eta mineralekin bueltatzen ziren. Dударik gabe, hegazkin hauen ondorioa trafiko gehiago egotea zen, baina behar zutenen eskualdeei salerosketa-trukea ziurtatzeko aukera ematen zieten. Mineralek esportazioak etenda uzteko hartu ziren neurriak zirela kausa, hegaldi hauek gelditu araziak izan ziren, oinarritzko produktuen garraioa oztopatuz eta, ondorioz, beraien salneurria goz isolatutako eskualdeetan. Orokorrean, salerosketa-jarduera gutxiagotzen ari da eskualde honetan. Gomako Polé Institutoko Aloys Tegera-ren arabera, Ipar Kivuko eskualdeko esportazioak bi heren jaitsi dira gutxi-gorabehera eta erregaiaren kontsumoa erdira. Eskualdeko ekonomiaren desazelerazio hau irabazien galera handia da eskualdeko finantzaketako. Gainera, artisan-sektoreak sektore industrialak baino lanpostu gehiago sortzen ditu, orokorrean sektore industrialak eskualdeko langile kopuru txiki bati bakarrik lana ematen baitio. BANRO-k Twangiza-n lan egiten hasi izanak egiaztapen hau konfirmatzen du, enpresa hau ireki baino lehen eskualdean dauden milaka meatzari aktiboetatik<sup>15</sup>, enpresak bakarrik 650 kontratuko baititu.

<sup>13</sup>Nazio Batuen Aditu-Taldeak Kongoko Errepublika Demokratikoan, op.cit., orr. 51-52.

<sup>14</sup> Laguntza Katolikorako Zerbitzua (Catholic Relief Service (CRS)) eta Baliagai-Naturalen Apezpikuen Batzordea (CERN), *Étude des besoins. Communautés minières de Lutwinja, Mukungwe, Ninja et Nzibira (Sud Kivu – RDC)*, 2011ko urria.

<sup>15</sup> Errolda batzuek 13.000 lagun kalkulatu dituzte. Kopuru zehatza 6.000 langun ingurukoa izango litzateke.

## IX. Meataritzaren arautzeari zuzendutako ekimenen ezarpen kaotikoa

Eskualdeko eta nazioarteko behatzaileen arabera, presidentek 2010eko irailean etetea erabakitzeak eta ondorengo blokeoak ekialdeko Kongoko meataritza arautzera zuzendutako gobernu edota pribatuak ziren hainbat ekimenen ezarpena hankaz gora jarri dute<sup>16</sup>. Izan ere, ekimenak biderkatu egin dira azken urte hauetan<sup>17</sup>. Orokorrean, desberdinak baina aldi berean osagarriak diren ikuspegiak jorratzen dituzte ekimen hauek<sup>18</sup>: “gatazka gabeko” mineralen bidalketen onespren “egiaztapena”, mineralen “trazabilitatea” jatorrizko meategitik atera ondoren eta “zuzeneko aduraren” prozesua, azken honen bitartez salerosketan sartuta dauden enpresa orok ziurtatzen dute ez dutela gatazka mineralekin lan egiten. Laugarren ikuspegi bat, meategi kokalekuen kartografia da; ez horren ezaguna bada ere, funtsezkoa da, beste hiruak bete daitezzen ezinbesteko baldintza baita.

**Egiaztapenak** ondorengo hau ziurtatu nahi: Kongoko Errepublika Demokratikoko mineralen erauzketak derrigorrezko giza, ingurumen eta zuzenbideko arau batzuk errespetatzen dituela, arau hauek mineralak “gatazkarik gabe”-ko mineralak direla bermatzen dutelarik. Aintzira Handien Eskualdearen buruzko Nazioarteko Batzarrak, teknikoki Geozientziera eta Baliagai-naturaletako Instituto Federal Alemanaren (BGR- ez alemanez) laguntzarekin, ekialdeko Kongoan eta Aintzira Handien Eskualdean ekoiztutako mineralen egiaztapen-mekanismo bat martxan ipintzea zuzentzen du gaur egun. Gainera, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruandak, Burundi eta Uganda sistema hau ezartzeko konpromesua hartu duten herrialde nagusiak dira. Prozesu honen indarra gobernuak neurri handi batean sistema zuzentzen duten ideian errotzen da eta nazioarteko esparru indartsu batean oinarritutako kontrol-sistema bat ezarri beharko luke. Zoritxarrez, gaur egun duen ahultasuna indar honetatik dator: urte batzuk itxaron behar da Aintzira Handien Eskualdeko Nazioarteko Batzarraren egiaztapen-sistema erabat eraginkorra izan baino lehen, Estatuak Eskualdean duen ahalmen ahulak eta kontrol eraginkorra bermatzen duten erakunde berriak ezartzeko beharra dela eta.

BGR-k (Geozientziera eta Baliagai-naturaletako Instituto Federal Alemanak), “Egiaztatutako Salerosketa-Kate” (Certified Training Chain, edo CTC ingelesez), izeneko proiektuaren bitartez, egiaztapen-sistema hedatuago bat sortu du emankorrek diren zonaldeetarako, gardetasunerako eta ingurumen- eta gizarte-etikarako irizpideak barne sartuz; sistema honek mineralaren trazabilitatea ahalbideratuko du meategitik ateratzen diren kargamentuen enbalatzerako eta etiketapenerako gailu baten bitartez. Egiaztapen administratibo honekin batera mineralen egiaztapen geokimiko bat dago (arrasto geokimikoaren identifikazioa) bere jatorria “zientifikoki” egiaztatu ahal izateko salerosketa-kate osoan zehar. Hala ere, Kongoko estatuak sistema honen baliagarritasuna mesfidantzaz begiratzen du, oso garestia baita.

Mineralen jatorriraino egiten den **trazabilitateak edota miaketak** erosleek talde-armatuek edota miliziek kontrolatutako meategitik ateratzen diren mineralak erostea ekiditzen du. Kasu honetan, helburua talde armatuek garriobideetan zehar egiten dituzten mineralen estortsio ekintzen kontra borrokatzea da eta baita legez kanpokoeta beren kabuz salerosketa-jardueren artekariei ere begira. Izan ere, bi praktika hauek funtsezko finantzaketa bat dira Kivu-etako gerra-egile alderdientzako, alderdi hauek bakarrik lekuan bertan egindako arzerketekin identifikatutak izan daitezkeelarik. Gaur egun trazabilitateari buruz dauden ekimen nagusiak ondorengoak dira: (1) mineralen iTSCI (Tin Supply Chain Initiative – “Eztainuko hornitze kateari buruzko ekimena”) etiketatze- dispositiboa, ezta inu industriak zuzendutakoa (ITRI-Industriako Teknologiararen Ikerketarako Institutoa); (2) “gatazkarik gabeko galdategiak” (*Conflict-Free Smelter-CFS*) izeneko tantalio galdategien balioztatze-prozesua, *Global e-Sustainability Initiative*-k (GESI<sup>19</sup>- Munduko e-Iraunkortasunerako Ekimena) eta “Industria Elektronikoen Hirritarren Koalizioak” (*Electronics Industry Citizenship Coalition-EICC*<sup>20</sup>) sustatutakoa.

Hornitze kateetan sartuta dagoen enpresa orok talde-armatuei irabaziak ematen dizkien mineralak hartzen ari ez direla ziurtatu behar du, eta prozesu honi **zuzeneko ardura** deritzogu. Laburbilduz, metodologia hau martxan ipintzeak enpresen

<sup>16</sup>Sarah Zingg Wimmer era Filip Hilgert, *op. cit.*

<sup>17</sup>Ikusi bereziki Didier Verbruggen, Evie Francq y Jeroen Cuvelier, *op. cit.*

<sup>18</sup>Global Witness, *L’avenir du commerce de minerais congolais dans la balance : opportunités et obstacles associés à la démilitarisation*, (Kongoko mineralen salerosketaren etorkizuna balantza : desmilitarizazioarekin lotuta dauden aukerak eta oztupoak), 2008ko maiatzak 18, ikusi orr. 6-7.

<sup>19</sup>GESI informazioko eta komunikazioko elkarte pribatuez osatutako erakunde bat da, eta informazioko eta komunikazioko teknologien eraunkortasunaren sustapenari lotuta dago.

<sup>20</sup>EICC komunikazioko eta informazioko teknologien eta elektrogintzaren enpresa pribatuen erakunde bat da. Ingurugiroko eta lan-baldintzak hobetzen dituen jokabide-kode bat sustatzen du munduko hornitze kateentzako.

kudeaketa-sistemak era mailakatuan indartzea uzten du, batez ere mineralen segimendu-sistema bat bere jatorrizko meategitik ezarriz. Metodologia hau ondorengo puntuetan oinarritzen da:

- (1) Hornitze kateak talde-armatuak finantzatzea ekartzen dituen arriskuak identifikatu eta ebaluatu
- (2) Egon daitezkeen arriskuen kontra borrokatzeko behar diren estrategiak sortzea eta implementatzea
- (3) Kontu-ikuskapen independenteak baliatu zuzeneko ardura inplementatzeko
- (4) Enpresek hartutako neurriak publikoki kaleratu eta hedatu

Ikuspegi hau arinagoa da eta merkeagoa da konplexuagoak diren egiaztapen erregimenak baino. NBE-k eta Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) ia arau berberak garatu dituzte. Aintzira Handien Eskualdeko Nazioarteko Batzarreko Estatu kideak ELGA-ren arauak hartu dituzte "Baliagai Naturalen Legez Kanpoko Ustiapenaren kontrako Borrokari buruzko Eskualdeko Ekimena"-ren tresnetako bat bezala eta "Aintzira Handiko Eskualdeko mineralak erosten dituzten multinazionalerik eskatu diete Araudi hauek betetzea". 2011ko irailaren 6an, Kongoko Meategien Ministerioak zirkular bat argitaratu zuen eta zirkular honek nazioko mineral-hornitzaile guztiak behartzen zituen NBE-ren eta ELGA-ren zuzeneko ardura hornitze katearen zati guztietan burutzera. Lekuan bertan, neurri hauek apenas ezarri diren.

**Kartografia** (*mapping* ingelesez) beste hiru faktoreek betetzeko aurretiko baldintza da, mineralen jatorria eta bere merkataritza-ibilbidea ezagutzea ezinezkoa delako hasieratik ez badakigu zeintzuk diren zehatz-mehatz ustiapenaren kokaleku emankorrak. Zentzu honetan, hainbat ekimen daude aldi berean.

Logikoki, Meatzte-Katastroaren administrazioak informazio kartografikoaren bilketa eta meatzte-kartografiaren eguneratzea ziurtatu behar duen erakundea izan behar du. Hau zaila da artisau-sektorerako. 2002ko Meatzte-araudiak publikoari eta interesa zuten inbestitzaileei begira meatzarien baimenen mapa eta harrobietarako baimenak eskuragarri izatea aurreikusten zuen. 2011ko urritik geroztik, Meatzte-Katastroko web orrialdeak emandako eta tratamendu prozesuan dauden tituluen kartografia bat du Kongoko Errepublika Demokratiko osorako<sup>21</sup>. Hilabetero eguneratzen da. Era berean, Carter Etxeak meatzte-ustiapen industrialeko mapak garatu ditu Katanga eskualdean<sup>22</sup>. Belgikak ere bere lekua du esparru honetan bi proiektuei esker. Lehenak "GECO Kartografia" (Garapen ekonomiko iraunkor batentzako Geologia, *Geology for an economical sustainable development*) du izen eta Tervureko Erdialdeko Afrikarako Museo Erreala-ren ekimenari esker ikusi du argia; bere helburua agintarien, inbertitzaileen eta publiko handiaren eskuan datu-base handi bat ipintzea da. GECO proiektuaren web orrialdeak kartografia interaktibo bat du eta Kongoko Errepublika Demokratikoan zehar meategi ezagunen informazioa du bere baitan<sup>23</sup>. Bigarren proiektua Anbereseko *l'International Peace Information Service*-k (IPIS), Belgikako Kanpo-Arazoetarako Ministerioaren diru-laguntzarekin batera, sortutako Gatazken Kartografia proiektua da. 2005etik aurrera mapa batzuk egiten dira bi helburuekin: alde batetik, gatazken loturak ikertzea eta, beste alde batetik, bere azpian dauden kausak ikertzea. Kausa hauen artean, baliagai naturalak gatazkan dauden eskualdeetan egotea, batez ere Kivu-etan eta inguruko barrutietan (Ekialdeko eskualdeak eta Maniema, Ipar Katanga, eskualdeak), aurkitzen da<sup>24</sup>.

## X. Zein rol edukiko du artisau-sektoreak Kongoko Errepublika Demokratikoko garapenean?

15 urteko existentzia kaotikoaren ondoren, ekialdeko Kongoko artisau-sektoreak bere etorkizunerako erabakigarria den norabide baten aurrean aurkitzen da. Ikerketa honetan deskribatutako egoerak ikasbide batzuk eskuratzen eta funtsezko galderak egiten uzten du.

Ekialdeko Kongoan, ekonomiaren militarizazioa meatariztatik haratago doa. Horrela, ez da nahikoa mineralen eta talde-armatuen finantzaketaren arteko loturari erasotzea, ikuspuntu zabalago bat beharrezkoa da Eskualdeko segurtasun-eza eta

<sup>21</sup> Ikusi: <http://www.flexicadastre.com/drcmapportal/>

<sup>22</sup> Ikusi <http://www.congominer.org/map/>

<sup>23</sup> Ikusi <http://www.gecoproject.org/>

<sup>24</sup> Ikusi <http://www.ipisresearch.be/mapping>



bortxakeriarekin amaitu nahi badugu. Dodd/Frank Legearen 1502 atala hartzearen helburuak laudagarriak izan arren, egoeraren zailtasuna bere baitan bakarrik erantzun ezin daitekeela estimatzea logikoa da. Beste alde batetik, honek sektore pribatuaren mesfidantza sortu du, sektore honek mineralak erosteari utzi baitio. Bai ustiapenaren militarizazioari bai sektore pribatuaren blokeoari dagokionez, misioan zehar Kongoko Errepublika Demokratikoan bildutako ia eragile guztiak ados zeuden: lehenengo kausak Estatuaren ahultasuna eta bere ezintasuna dira ekialdeko Kongoko eskualdeak Kinshasatik administratu ahal izateko. Kivu-etan, talde-armatuek bide librea dute eskualdeko ekonomian eragiteko eta zigortu gabe ankerkeriak egiten dituzte populazioaren artean (arpilatzea, bahiketa, bortxaketak, hilketak). Baliabide eta aginpiderik ezean, eskualdeko administrazioa ez da gai artisau-sektorea zuzenki mugatzeko, beraz, beharrezko baldintzak ezarri behar dira “zuzeneko ardura” martxan ipintzeko. Modu honetan, gobernantza da arazo nagusia, maiz gertatzen den bezala. Honen mendea aurkitzen dira erosle eta erabiltzaileen konfidantza berrezartzea, eta eskualdeko Kongoan espero den jardura berriz hastea. Jardura berriz hastea desiratzen da, ez bakarrik meatzarien biziraupen ekonomikoaren ikuspuntutik, Eskualdearen segurtasun eta garapen ekonomikoaren ikuspuntutik ere; Aloys Tegerak dioen bezala, “nola garatu daitezke sektorea erregulatzen duten ekimenak jarduerarik baldin ez badago?”. Arauketa artisau-sektorearen funtzionamendua zuzentzeko eta populazioaren garapenerako eskuetan ipintzeko beharrezko baldintza da.

Zentzu honetan, eta aurreko puntuan aipatu diren ekialdeko Kongoko eta Kinshasaren arteko iritzi desberdinak kontuan hartuz, garrantzia handiko arazo bat erantzun barik geratzen da: zein da Kongoko Estatuaren ikuspuntua meatzaritza-artisauaren etorkizunari dagokionez? Bere lehenengo agintaldian zehar, badirudi Kabila presidentek ez diola arazo honi interes asko zuzendu. Batzuek jarrera honen azalpena ondorengoan aurkitzen dute: industriagintza interesgarriagoa da, finantza-ikuspuntu batetik, sektore honetan nazioarteko meatze-agente pribatuekin (Kanada, Estatu Batuak, Ingalaterra eta Hegoafrika) edota publikoekin (Txina) kontratu handiak gertatzen baitira. Industriagintzak dirutan sortzen dituen milioika dolarren aldean, Kinshasan gobernuaren eskuetara zuzen-zunean iristen direnak, ekialdeko Kongoko urrutiko eskualdeetako artisau-jardura ez dirudi horren interesgarria. Beste alde batetik, artisau-sektorea arautzeak arriskuei aurre egitea dakar, honek 15 urtez gero, bai Kinshasan bai beste tokietan, Estatu ez egoteak eta arpilatzeaz aprobetxatu direnen interes ugari ekitea ekartzen baitu.

Kinshasaren intentzioak artisau-meatzaritzaren etorkizunari dagokionez argituak izan behar dira, hain zuzen ere. Denborarekin, artisau-ustiapenak bere lekua utzi behar ahal dio ustiapen industrialari? Edota bi ustiapen-ereduak aldi berean egon daitezke, gizarte zibilak ekialdeko Kongoari eskatzen dion bezala? Azalpen hau, guztien ikuspuntu hau, beharrezkoa da Kongoko Errepublika Demokratikoak nahi badu Estatuak berak, herrialde kideek, funtse-emaeleek edota sektore pribatuak artisau-sektorearen arautzean laguntzea.

## **XI. Ekintza burutzeko laguntzak**

Sektorearen onbideratzea ezin da burutu gaur egungo eta etorkizuneko ekimen desberdinak era kaotikoan eta neurrigabearen inplementatzen jarraitzen badute. OGP-eko (Observatoire Gouvernance et Paix, Gobernantzarako eta Bakerako Behatokia) Eric Kajemba-ren arabera, ekintza lau fasetan egituratu behar da. **Lehenengo fasea**, Kongoko Errepublika Demokratikoko Indar Armatuaren aginte-katearen boterea berrezartzea eta meategien eta merkataritzaren desmilitarizazioa da. **Bigarren fasea** era industrialean edota artisauan ustiatu daitekeen emakida argitzen duen erabateko meatze-katastro bat ezartzea izango litzakete. **Hirugarren fasea**, artisau-sektorerako laguntza, modu eraginkorran martxan ipini daiteke bakarrik lehenengo bi faseak burutu ondoren. Lehenengo aipatutako ustiapenaren eta merkataritzaren arauketaren ekimenen bitartez burutu daiteke (trazabilitatearean egiaztapena, zuzeneko ardura) edota meatzariei zuzendutako laguntzaren bidez (laguntza teknikoa, kredituak lortzeko aukera). Azkenik, **laugarren fase** bat behar da meatzaritza industrialara eta artisaua garapenerako faktoreak izan daitezen: eskualdeko komunitateentzako eragin positiboa ziurtatu, bai ikuspuntu sozio-ekonomikoan bai ingurugiroko alderdietan, eta gizabanakoaren eta taldeko eskubideen errespetuan.

Egitura hau oinarri gisa hartuz, jokabide desberdinak aurreratu daitezke Belgika eta Europatik. Europar Batasunak Dodd/Frank legearen esperientziatik atera behar duen ikasbideetako bat ondorengoa da: “gatazkarik gabeko” mineralen jatorriaren egiaztapen eraginkor bat ezin da bakarrik inplementatu enpresen kontrol-neurrien bidez. Modu osagarrian, Kongoko agintarien ahalmenak laguntzea beharrezkoa da herrialdeko eta atzerriko enpresei zuzeneko arduraren arauak errespetatzea uzten dieten ustiapen-baldintzak ezartzeko. Era berean, gizarte zibilari zuzendutako laguntza handitzea beharrezkoa da, eskualde mailan botere publikoekin elkarriketan aritu dadin eta baliagai naturalen kudeaketaren kontrolean duen papera burutzerako orduan gaitasun handiagoa eduki dezan.

### **1) Kongoko Estatuaren gobernantzaren hobekuntza**

Belgikak eta Europak Kabila presidentea eta bere gobernu presionatzen jarraitu behar dute. Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, Kivu-etako hainbat arazok Kinshasako gobernantzaren ahultasunean dute jatorria. Hitzaldi eta deklaraziotik haratago, hobekuntza hau ondorengo ekintzak ekartzen ditu berekin:

- a. Armadaren eta justiziaren erreforma lagundu (ikusi **1. fasea**): gobernuak meategi-kokalekutik armada kentzeko eta legez kanpoko mineralen salerosketan nahastuta dauden gizabanakoak auzipetzeko konpromisoa mantendu beharko luke. Hau burutzeko, aginte-kate ofizialaren autoritatea berrezarri behar du Kongoko Errepublikako Demokratikoko Indar Armaturen baitan, ustiapenean eta salerosketan sartuta dauden militarren atxilotu eta epaitu behar dituzten auzitegien independentzia bermatu.
- b. Meategien kokalekuen erabateko katastroa egitera lagundu (ikusi **2. fasea**): kasu honetan, Belgikak paper berezia du Kongoko geologian eta geografian (mapak) duen esperientzia dela eta. Babesten dituen ekimenez gain<sup>25</sup>, Katastroaren administrazioa era zuzenagoan lagun dezake. Bere helburua emakiden benetako kartografia zehatza bilatzea izango litzateke eta kartografia honek zein emakida artisau-ustiapenerako eta zeintzuk ustiapen industrialara zuzenduko diren identifikatu beharko luke.
- c. Garraio-azpiegituren garapenean lagundu (ikusi **1. eta 3. faseak**): babesa eta erregulatutako ekonomia batera itzultzeko, garraio-azpiegiturak birgaitu behar dira. Itzultze honek populazioaren lekualdaketa babestua eta nekazaritza-zonaldeen integrazioa merkatuetara eta babestutako merkataritza-guneetara baldintzatzen ditu.
- d. Artisau-meatzarientzako zuzeneko laguntza sustatu (ikusi **3. fasea**): kredituak lortzeko aukera eta oinarri tekniko eta komertziala edukitzea. Semi-mekanizatuak dauden enpresa txikiak sortzea da helburu; honek lan-baldintzak eta jardueraren bideragarritasuna hobetuko litzuzke eta eskualdeko ehun ekonomikoan ondorio oso onak ekarriko litzuzke.
- e. Eskualdeko eta probintziako hauteskunde askeak eta gardenak egitea lortzea (ikusi **3. eta 4. faseak**): 2011ko amaieran presidentetzarako hauteskundeak eta legegintza-hauteskundeak amaitu ondoren, Kongoko Errepublikako Demokratikoak Estatu osatzen duten erakundeen (Presidentzia, Gobernu, Parlamentua, etab.) legitimazio-krisi sakon bat ezagutu zuen. Krisi honi eta Ekialdeko eskualdeak gobernatzerako orduan Kinshasaren ezgaitasunari aurre egiteko, Konstituzioak aurreikusitako deszentralizazio prozesuarekin jarraitzea eta eskualdeko eta probintziako hauteskunde askeak eta gardenak antolatzea komenigarria da. Kinshasak aukeratutako gaur egungo eskualdeko ordezkariak gizarteak hautatutako pertsonen ordezkatu behar dituzte; pertsona hauek kontu eman behar dute, ez bakarrik esparru demokratikoan orokorrean, baizik eta baliagai naturalen kudeaketan ere. Izan ere, hautetsi hauek ondorengo ekintzen ardura izan beharko dute: kudeaketak legea errespetatua izatearena, artisau-sektorearen arautze ahaleginei laguntzea eta ustiapen-zonaldeetatik gertu dauden lekuko komunitateen interesez arduratzea.
- f. Meatze-kodearen berrikuspina arauketara eta populazioaren interesetara bideratzea (ikusi **3. eta 4. faseak**): bere sorkuntzaren hamar urteren ondoren, Meatze-kodea berrikusiko da 2012an. 2002ko Kodeak artisau-sektorea eta meatzari-artisauaren estatusa era formalean aintzatetsiko meritua badu, sektorean lan egiten duten agente askok gaizki erabiltzen dute edota ez dute ezagutzen. Horrexegatik, meatzarien legezko aintzatespean eragina izan behar du. Kongoko Gobernuak artisau-sektorea arautzeko martxan jarri nahi dituen neurriak Kodean sartu beharko litzuzke zuzenean (egiaztapena, trazabilitatea eta zuzeneko ardura). Are gehiago, berrikuspina elkarriketa moduan burutu beharko litzateke Kivu-etako gizarte zibilarekin batera, **batez ere emakumeekin**, zeinek baliagai naturalen kudeaketan lan egiten duten bi eskualdetan. Kode honek lekuko komunitateak meatze-ustiapen artisauaren eta industrialaren ondorio positiboak onura ateratzea eraman beharko litzuzke.
- g. Baliagai naturalen kudeaketa onean lan egiten duen Kongoko gizarte zibilaren babesa indartzea (ikusi **3. eta 4. faseak**): Mobutu arotik jarauntsitako ustiapen-sistema gelditzearen, Kongoko gizarte zibilak baliagai naturalen ustiapenaren gainbegirale papera handiagoa garatu behar du eta iritzi publikoa ohartarazi. Batez ere, hainbat alderditan prestakuntza desberdina behar du: meatzaritzaren eta lehengaien (produktuen) nazioarteko merkatuaren funtzionamenduan, Kongoko Errepublikako Demokratikoan meatze-ustiapena arautzen duten eta partaideen eskubideak eta betekizunak ezartzen dituzten testu legegileetan, sektorea arautzeko ekimenetan, baliagai naturalen kudeaketan generoen arteko desberdintasunak duten paperean, informazio-bilketan eta lurreko ikuskapen-metodoetan, etab. Modu honetan indartutako gizarte kongoarrak gizarte-kontrola eta meatzarien eta populazioarekin igorle-agente bezala duen papera burutu ahal izango du.

<sup>25</sup> Ikusi lehenagoko «Meatzaritzaren arautzeari zuzendutako ekimenen ezarpen kaotikoa».

## 2) Europako ekimen legegilea: enpresen ardurapena eta gardetasuna hornitze kateetan

Mineral kontsumitzaile handia izanez, Europa ezin da bigarren maila batean geratu, eta Estatu Batuek egin duten bezala (ikus 1502 atala), legegile neurriak hartu behar ditu gure enpresak erantzungile egiteko beste herrialdeetatik datozen mineralen ustiapen-baldintzei dagokionez. Hau lortzeko, Europara bildatzen diren mineralen hornitze kateetan gardetasuna indartu behar da. Badirudi Europar Batasuna (EB) horretaz jabetu dela. Horrela, Europa Batasuneko Merkataritza Komisarioak, Karel De Gucht, 2012ko urtarrilean hitzeman zuen Europar Batasunak "ELGak enpresa multinazionalerako orain dela gutxi sortutako Arauen Bideen erabilera handiagoa eta laguntza handiagoa eta ELGak zuzeneko ardura eta hornitze kateen kudeaketa arduratsuari buruz emandako aholkuak<sup>26</sup>" defendatuko zituela. Gure informazioen arabera, Europako Batzordea eta Kanpoko Ekintzaren Europar Zerbitzua EB-k honi buruz har dezakeen ekimen mota zehazteaz arduratzen dira.

EB-k izango duen erronka nagusietariko bat Dodd/Frank legeko 1502 atala ezarri bitartean izandako zailtasunak saihestea da. Horrela, ekimen europarra eraginkorra izan dadin, Europar Bastunari gomendatzen diogu:

- a. Kongoko gizarte zibilari galdetzea: edozein ekintza burutu baino lehen, komenigarria da ekimena burutzearen arduradun europarrek gizarte zibilari galdetzea, batez ere ekialdeko Kongoan bizi denari. Europako Batzordeak enpresa europarren lehiakortasunaren gai labaina kontuan hartu behar du. Baina bere kudeaketak meatze-ustiapenaren lekuko erronkak ulertzean oinarritu behar du eta eskualdeko populazioan izango duten eraginaren kontua erronka hauetan integratu.
- b. Arreta osoa Kongoko Errepublika Demokratikoak jartzea sahiestea: Dodd/Frank legearen 1502 atalari egin dakioken kexa nagusia sektore pribatuaren arreta eta mesfidantza guztia Kongoko Errepublika Demokratikoan ipintzen dituela da. Baina herrialde hau ez da munduko "arrisku zonalde" bakarra. Ezbidezkoa eta partziala izateaz gain, ikuspuntu estatubatuarra partziala da munduko beste eskualde batzuei aipamena egiten ez delako, eskualde hauetan meatze-ustiapena era eraginkorrean edota potentzialean problematikoa delarik bortxakeriari dagokionez eta pertsonen eskubideen erasoei dagokionez.
- c. Dauden ekimenak sendotzea: beharrezkoa da etorkizuneko ekimen europarra Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Aintzira Handien eskualdean gaur egun ezarritako ekimenekin koherentea izatea<sup>27</sup>. Helburua ez da dauden ikuspegiak lehia egiten dien ikuspegi berri bat sortzea. Hemen gogorarazten dugu gizarte zibil europarrak orain dela urtebete Europako Batzordeari egindako deialdia zuzeneko ardura eta hornitze katearen kudeaketa arduratsuari dagozkien ELGA-ren neurriak hartzeko enpreseentzako txostenak egiteko metodo eraginkor gisa<sup>28</sup>.
- d. Bere ekimena loteslea izatea: enpresak erantzule egiteko eta gardetasuna hornitze katean bermatzeko EB-k hartutako neurriak derrigorrezkoak, eta ez hautazkoak, izan daitezten erabakigarria da. Izan ere, hau egiten ez bada, enpresa askok ez dituzte beharrezko kontrolak egingo, eta hau desabantaila handia izango litzateke gauzak hobetzen saiatzen diren enpreseentzako<sup>29</sup>.
- e. Mailakako ikuspegi bat hartzea sektore pribatuari dagokionez: 1502ko atalaren kasuan ikusi da sektore pribatuak denbora behar duela zuzeneko arduraren ezarpenari egokitzeko. Kasu kongoarraren blokeo mota sahiesteko asmoz, ekimen europarraren inplementazioa poliki-poliki egin beharko litzake, adibidez, aldi baterako neurriekin eta neurri osagarriekin, bere beharra zalantzan jarri gabe.

<sup>26</sup> Europako Batzordea, «Merkataritza, Hazkundera eta Garapena: neurriak egindako merkataritza- eta inbertsio- politika herrialde behartsuenentzako», 2012/01/27, ikusi :

[http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2012/january/tradoc\\_148996.pdf](http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2012/january/tradoc_148996.pdf)

<sup>27</sup> Ikusi lehenagoko «Meataritzaren arautzeari zuzendutako ekimenen ezarpen kaotikoa».

<sup>28</sup> EURAC eta Fatal Transactions, *EURAC and Fatal Transactions call for the EU to step up engagement on conflict minerals*, 2011ko apirilak 27, <http://www.eurac-network.org/accueil.php?lg=en&pg=advocacy&spg=2011-04-27>

<sup>29</sup> Global Witness eta CCFD-Terre Solidaire, *EU takes step towards conflict-free supply chains*, 2012ko urtarrilak 27, <http://www.globalwitness.org/library/eu-takes-step-towards-conflict-free-supply-chains>



Frédéric Triest,  
Justizia eta Bakearen Batzordea Belgika frankofonoan  
2012 maitza

**act:onaid**  
Netherlands



**BEWG**



**INFO**  
**BIRMANIE**

International **Crisis Group**  
WORKING TO PREVENT  
CONFLICT WORLDWIDE

Investors / **Against Genocide**



**Otros firmantes:** Acidi Congo (Kivu del Sur), República Democrática del Congo; Action des Chrétiens Activistes des Droits de l'Homme à Shabunda (ACADHOSHA), República Democrática del Congo; Centre National d'Appui au Développement et à la Participation Populaire (CENADEP), República Democrática del Congo; Centre for Trade Union and Human Rights (CTUHR), Filipinas; Fair Trade Centre, Suecia; Free the Slaves, Estados Unidos; Mark Taylor del FAFO Institute for Applied International Studies Oslo, Noruega; Shan Sapawa, Birmania.

**Laguntzaileak:**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**